



Derrigortutako lekualdatzeak. CCCOri erantzunez.

Lehenik eta behin CCOOk aipatzen duen oharra berriro irakurtzea –edo lehenengoz irakurtzea- gomendatzen dizuegu. Mezuari atxikita bidaltzen dugu eta intraneten ere topatuko duzue. Horrela harenak eta gureak diotena baloratzea izango duzue.

Gure tirabirekin gogaitu zaitzaketegula jakin arren, erantzun behar diogu CCCOri publikoki.

Bere oharrean LABek dio “ekintza sindikala, bide juridikora jo baino lehen. Beste sindikatu batzuek, berriz, bigarren hori lehenetsi dute” gaur arte horixe baita errealitatea, ez besterik. Hala ere, esan behar izan genuen **ekintza sindikala eta auzibidea bateratzea**, afilatu kalteturik izan ala ez , horixe baita LABek uste duela egin behar dela arazo batek eragiten dion edo eragin diezaiokeen kolektibo oso bai.

Inon ere ez dugu esan ez dela errekurritu behar. Hori CCOOren irakurketa interesatua da. Gehiegitan, negoziazio ezak edota administrazioaren bidegabekeriak behartzen gaituzte auzietara jotzera. Denok dakigu -are gehiago “etxe honetan”- alde zurririk ezin galduzkotzat jotako kontua epaileen esku uztea loteria hutsa dela. Bilboko Instrukzioko epaitegietako langileen kasua sonatua izan zen (guardiaren interpretazioa eta berronen konpentsazioa). Izan ere, gure informazio oharrean bide horrek duen arriskua nabarmendu nahi izan genuen. Sententzia irabaztean berehala haizatzen dugu (“medailatxua” erakustea barne), baina galtzen direnen berririk ez dugu izaten.

Horiek horrela, ekintza sindikalaren bitartez (auzibidera jotzearekin bat izan daiteke) ahal zen dena egindakoa ez badugu lortu administrazioak atzera egitea, auzitegietara jo beharko dugu. Zoriak lagun gaitzala! Dena den, sailak galtzekotan ere ikusi dezake bere burua legitimaturik, hurrengo batean bere aldeko sententzia lortzen saiatzeko.

Berehalako erreakzioa exijitzen duen gatazkan hain motel mugitzeari gaizki deritzogu. Pasa den astean derrigortutako lekualdatzeen asuntua behin baino gehiagotan agertu zuten hedabideek. Justiziako langile gehienek informazioa egunkarian jaso dute; lekualdatzeen aurka denak egon arren, haien ordezkari sindikalek ez baitzieten ezer azaltzen.

Aste honetako astelehenean, CCOOk esan zuen auzitegi medikuen elkarretaratzeari (asteazkena) itxaron behar zela lanuztez, mobilizazioez... hitz egiten hasteko, ez zela nahastu behar gaiak. Sindikatu batek proposatu zuen... ostiralean batzea! Inork ez zuen beste ezer esan. Testuingurua hori izanik, LABek erabaki zuen oharra bidaltzea Bilboko Instrukzio 8ko kontua hizpide harturik.

Bada, auzitegi medikuen elkarretaratzera ahalik eta langile gehien joan zitezten Bilboko bulego guztietatik pasatu zen bakarra LABeko ordezkari bat izan zen. Gaiak ez

nahasteko nahiak eta erabakiak atzeratzeak inobilismoa ekar lezakete. Hori seguruenik ez da “postureoa” baina bai bihur liteke posizio.

Azal diezagula CCOOk zerk eragozten duen mobilizazioak edota bestelako ekintza deitzea gorako helegitea prestatzen den bitartean. Edo hori baino lehenagokoa: egin beharreko mugimenduei buruz hitz egiteko batzea.

Esan beharra dago behin besterik ez garela bildu Instrukzio 8ko kontua jorrazteko, otsailaren 2an. Onartutako bi ekintzetatik, bata LABek proposatu zuen, saileko arduradunen batekin hitz egiteko asmoz Lakuara joan eta hantxe geratzea gu hartu hartu. Data zehazterakoan, baina, sindikatu guztiek arazoak zeuzkaten agendan edo bertaratzeko delegatu falta; horiek horrela, hurrengo astera nahi izan zuten atzeratu ekintza. LABek esan zuen ezin zela horrenbeste geroratu Justizia Administrazioako Zuzendaritzak egindako gehiegikeriari eman beharreko erantzuna; hortaz, ostegunerako, hilak 4, adostu genuen.

Beste sindikatu batek proposatu eta oniritzitako beste akzioa egitea LABi egokitu zitzaion: prebentzio delegatuon idatzia. Azkenean besteek ez zuten nahi izan izenpetu, errekurtsioa abiatuta izanik aurkako eragina izango zuelakoan, sindikaturen bateko sail juridikoaren iritziz. Beraz, ez dugu ulertzen zer esan nahi duen CCOOk, bigarren puntuan, idazten duenean (LABek) ez duela nahi entzun gehiengoak erabakitzen duena. Batzar hartan aho batez erabaki zen eta LAB ez da izan onartutakoa bete ez duena.

LABek bere nahia egiten duela eta egitateen azalpena ematen dugula esaldia eta CCOOk egiten duen batasun sindikalerako diealdiari buruz, harrigarria da nori begira eta LABi begira esatea; Instrukzio 8ko kontuan nor berea egin duelarik:

- Egun batzuk beranduagorako jarritako bilerari aurrea hartu ziola, sindikatu batek deialdia igorri zuen EATak protesta idazkiekin betetze asmoz.
- Bilboko Instrukzio epaitegietan egiten ari zen arrisku psikosozialen ebaluaziorako lantaldetik irten ziren prebentzio delegatuak, banaka eta bakoitza iritzi zion unean; lan-talde horretan parte hartzeari uko kolektiboa, askoz ere indartsuagoa, planteatu gabe;
- LABen prebentzioko delegatuak zenbait ahalegin egin arren –mezuak bidali eta errekaduak utzi- prebentzioko delegatu bat egunetan egon zen erantzun gabe. Azkenean esan zuen bere kabuz arituko zela. Horrek beste erakundeen ekintza sindikala atzeratzea ekarri zuen.

Berriro diogu: esan dezala CCOOk zerk oztopatzen du mobilizazioak edo ekintza sindikala deitzea gorako errekurtsioa prestatu bitartean? EAEn gehiengo sindikala duen sindikatuak ezin du ordezkari bakar bat ere eseri mahiaren inguruan beste sindikatuarekin batera erantzun bat antolatzeke? Horretarako genetika historiala ez da baliagarria; balio duen bakarra egitateak dira.

LABek ez zuen hau guztia argitara emateko asmoa, baina esaldi bakar batek eragin duen erantzun neurrigabea ikusirik, argitu beharra genuen.

2016-02-12

P.D. Gure aurreko oharra atxirik mezuari edo intranet topatuko duzue.